

Urtero bezala, aurten ere milaka lagun elkartuko da irakaskuntza-munduko festa handien ingurura. Ikastolen jaiak izan, edo eskola publikoarenak izan, Euskal Herriko bazter-rrak jokoz, musikaz eta jolasez beteko dira.



Ohi denez, Ipar Euskal Herriko ikastolen jaia den **Herri Urrats** helduko da lehenik, maiatzaren 8an, Senpereko lakuaren inguruan ospatuko dena.

Gero, maiatzaren 22an, **Nafarroako Euskal Eskola Publiko Berriaren** jaia egingo da, Sortzen-Ikasbatauz elkarrekin antolatutako. Iruñeko Takoneran izango da, "Etorbizuna euskaraz blai" lelopean.



Maiatzaren 29an, aldiz, **Ibilaldia**ren 27. edizioa egingo da Durango; aurtengoa

Kurutziaga eta Ibaizabal ikastolek antolatuko dute "Emon bostekoa" lelopean.

Hurrena, ekainaren 5ean, **EAEko Euskal Eskola Publikoaren XIV. jaia** egingo da, Euskal Herriko Ikasleen Gurasoen Elkarteak antolatutako. Agurainen izango da, "Bideak egin" lelopean.

Uda aurreko azken jaia **Araba Euskaraz** izango da: Amurrioren egingo da, ekainaren 19an, Aresketa ikastolak antolatutako, "Ekiozu bideari" izango du lema.



Euskaraz ikasi edota ikasi edota gure hizkuntzan duten maila hobetu

nahi dutenek hamaika aukera dute gaur egun: ohiko ikastaroak batetik, Internet bidezkoak bestetik, bateko barnetegiak, besteko egonaldiak... Egonaldiei dagokienez, azken urteotan bezala, aurten ere "**Egonaldiak familia euskaldunetan**" izeneko egitasmoa martxan jarri dute Ulibarri eta Urrats euskaltegiek HABEren laguntzarekin. Udan euskara ikasleren bat etxean hartu nahi duten familia euskaldunek emana dute izena. Ikasleen izen ematea, berriz, maiatzaren 15etik 31ra egin ahal izango da. Kanpainari eta izen emateari dagokion informazio osoa, www.urrats.com, www.ulibarri.org, edo www.habe.org helbideetan.



Hizkunea, soziolinguistikako aldizkari elektronikoa berria sortu da. Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak formatu elektronikoa argitaratutako agerkari bat da, soziolinguistikarekin zerikusia duten gai eta ezaguerak zabaltzeko helburuarekin sortua. Aldizkariaren ale bakoitza lau ataletan egituratuko da, horien artean egile ospetsu batek idatzitako artikulua nagusi batek izango duelarik pisurik handiena. Argitarapen albisteak, ikerlari buruzko berriak eta gertakizunen agenda dira **Hizkunearen** gainerako osagarriak. Honelako argitarapen dinamiko bati dagokion bezalaxe, atalok astero, hamabostero zein hilero egunera daitezke, albisteek eskatzen dutenaren arabera.

Bere nortasun-ezaugarriak galdu gabe, eta Euskal Herriaren argitaratzen den aldizkaria dela ahantzi ez arren, edozein eremu geografikotik soziolinguistikaren arloan gertatzen diren berriak jasotzen dituen argitarapen bat izan nahi du **Hizkuneak**. Bere osotasunean euskaraz eta ingelesez argitaratuko bada ere, orrialde nagusia eta artikuluen laburpenak frantsesez eta gaztelaniaz izango dira.

Hizkunea aldizkaria irakurri ahal izateko jo www.euskara.euskadi.net helbidera.



Hogeita bost urte bete berri ditu Euskal Herriko Unibertsitateak. Izan ere,

1980ko otsailaren 25ean lortu zuen, legez, Euskal Herriko Unibertsitateak bere izate osoa. Legez lortu zuena ekintzaz bereganatu du harrezkero UPV-EHUK, eta horren frogara dira bertan matrikulaturik diren 50.000 ikasleak eta eskaintzen dituen 78 titulazioak.



Sabin Unzurrunzaga hil zen Zarautzen martxoaren 13an. Zarauzko ikastolaren sortzaileetako izan zen Sabin Unzurrunzaga, Imanol Murua, Basilio Bergara eta beste zenbait lagunekin bate-

ra, eta Gipuzkoako Ikastolen Elkartearen eragileetakoak. Isaac Lopez-Mendizabal sariko epaimahai-kide izan zen 20 urtez.

Sabin inprenta lanean nabarmendu zen, bere aita Patxik sortutako Itxaropena inprenta historikoan. Zarauzko inprenta euskal liburuen inprimatze eta argitaratzeari guztiz loturik egon da, eta dago. 1936ko gerra baino lehen sortu zen eta gerra ostean hasi eta 1973 arte bera izan zen euskarazko liburuak plazaratzen zituen argitaletxe bakarra (Kuliska sorta). 70eko hamarkadaren hasieran, Euskal Herriaren argitaletxe berriak sortu eta gero, atzera inprenta-lanari ekin zion, erabat, Itxaropenak, hil berri den Sabin Unzurrunzagaren gidaritzapean.

Goian bego.



Kataluniako Generalitateak eta Eusko Jaurlaritzak lan-harremana eta elkarlana izan ohi dute, eta hori hainbat lankidetzaproiektu zehaztutan mamitu da.

Oraindik orain, berriz, beste urrats bat egin dute bide horretan. Izan ere, **hizkuntza politikaren gaineko protokolo orokorra sinatu dute** bi aldeek, elkarren arteko programa bat definitzeko asmotan, 2005etik 2008ra. Honako hauek izango dira lan-ildoak:

1. Komunikazio- eta informazio-trukea areagotzea.
2. Normalkuntzarako teknikarien prestakuntza sustatzea.
3. Terminologiaren alorreko hainbat informazio elkartrukatzea.
4. Ohiko kalitate-ziurtagirietan (ISO...) hizkuntza-irizpidea sartzea.
5. Estatuko Administrazioan eta Europar Batasunean hizkuntza ofizialak babesteko eta erabiltzeko neurriak sustatzea.

Sinatutakoaren arabera, urtean urteko jardueraplanak finkatu eta adostuko da, eta jarraipen-batzorde bat ere sortuko da, esparru-akordioaren segimendua eta ebaluazioa bermatzeko.



Ebanjelioen laburpen bat argitaratu du elizak bertsotan eta euskara batuan. **Berri ona kantuz** du izena eta Ludo Docx frantziaskotarra koordinatu du lana.

Bertan kantatzen diren melodiak doinu herrikoiak dira. Kantuak elizkizunetako une ezberdinetan erabil daitezke, nahiz eta katekesian ere erabiltzeko modukoak izan, parrokiari edo eskolan.



Gero baino gero gehiago dira euskara on line ikasteko aukerak. Denbora asko ez dela **Boga** metodoa aipatu

genuen eta orain, berriz, **Hasi Ikasten** izenekoa dugu albiste. On line ikastaro hau helduei zuzendurik dago, hasiberri hutsetik maila ertain altura doa.

Ikastaroa zailtasun-mailan gora egiten duten 35 ikasgaitan dago antolatua, teoriak (euskaraz eta gaztelaniaz) eta ariketak horniturik. Ikasleak, aurkeztutako ordenan osatu behar ditu ikasgaiak. Bost ikasgai osatzen diren bakoitzean, errepasso-ikasgaia dago, aurreko ikasgaietan ikasitakoa laburtzen duena.



Euskara-elkartetan parte hartzeko **kanpaina** abiatu dute 13 elkarteak. "Zein da hizkuntza eta zapaten arteko ezberdintasuna?" izenburupean, hizkuntzaren erabilera azpimarratu dute. Erantzuna: "Zapatak erabiliaz gastatu egiten dira eta hizkuntza erabiliaz aberastu egiten da!". Euskara-elkarteen helburu nagusia euskararen erabilera sustatzea da eta, horretarako, hainbat jarduerara prestatu dute.



EGA lortzeko gaitasun beharrekotarako **atariko azterketak on line** jarri ditu Internet&Euskadi elkarteak (www.internet&euskadi.org/euskara/ega). Elkarte horrek garatu duen aplikazioari esker erantzun zuzenak zein diren ere jakin daiteke, eta azterketetan jarri ohi dituzten hainbat audio-grabazio ere entzun daitezke, doan.

Proiektuak Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Fidenet enpresaren laguntza jaso du, eta jarraipena izango du.

Proiektuak Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Fidenet enpresaren laguntza jaso du, eta jarraipena izango du.



Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak lehendakari berria du otsailaz geroztik: **Iñaki Murua**, 48 urteko gabiriarra. Irakasle lanbidez, bertsolari da afizioz eta debozioz. Imanol Lazkanok 20 urtean betetako kargua hartu zuen lehendakari berriak.



Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak ez da zuzendari berria hautatu duen bakarra. Udako Euskal Unibertsitateak (UEU) ere arduradun berria du otsailaz gero:

Lore Erriondo pedagogo. Bera izango da UEUren zuzendaria datozen lau urteotan, Aitzpea Leizaola kargua utzi ondoren. UEUko zuzendaritza taldea ere berritu da ondorioz. Lore Erriondoarekin batera honako kide hauek arituko dira: Karmele Artetxe, Idoia Fernandez, Xabier Isasi eta Inaki Irazabalbeitia.



Elgoibarko **Makina** Erremintaren Institutuko (IMH) ordezkariak datozen hamar urteotan burutuko duen hizkuntza-politika aurkeztu

dute berriki. Horren arabera "Goazen" izena hartu duen egitasmo horretan IMHk hizkuntzari dago-kionean adostutako ildoak zehazten dira: hau da, euskara oinarritzko izan dadila lanean, produktuetan eta barne eta kanpoko harremanetan. Zerbitzuen kalitatea hobetzea da helburu, betiere. Horretarako, inguruko errealitatearekin eta bezero bakoitzaren beharrek bat datorren eskaintza sustatuko du, erakunde barruko baloreak errespetatuz.



Euskara merkataritzan eta elkarrekin bultzatzea kanpainak abiarazi dituzte Iruñerrian. "Euskara zure esku" egitasmoarekin elkarrekin zabaltzeko nahi dute eta "Euskara merkataritzara" izenekoarekin, berriz, euskararen erabilera saltokietan bultzatu.

Guztira sei udalek sinatu dute egitasmoa; Berriozar, Burlata, Oltza zendea, Uhartea, Zizur Nagusia eta Atarrabia udalek, hain zuzen ere. Merkataritza euskararen normalizazioa lortzeko alor estrategikoa delako erabaki dute egitasmoen bultzatzaileek bide horretatik abiatzea.



Haur eta gazte literaturari buruzko III. **biltzarra egingo du aurten OEPLI-k** (Organización Española para el Libro Infantil). "Irakurketa, identitateak eta globalizazioa" lelopean egingo da Valentzian, ekainaren 27tik 30era. Parte hartzaileen artean dira Bernardo Atxaga eta Mariasun Landa idazleak eta Manu Lopez EHUKO irakaslea.

Biltzarraren antolatzaileen artean da OEPLI-ren euskal ordezkari den Galtzagorri elkarte ere.

Teknologia berrien erabilerak hamaika aukera eta bat gehiago eskaintzen dizkio erabiltzaileari. Apirilko alean, esate baterako, eta euskarazko aldizkari berezietuei buruz ari ginela, horietarik batzuek beren edukiak Internet bidez ere eskaintzen zituztela adierazi genuen; orduan *Aizu!*, *Elhuyar*, *HABE*, *Bat*, *Bertsolari* eta *Uztaro* aipatu genituen.

Kontua da, ordea, izan, **edizio digitala baino ez duten agerkariak** ere badirela, guztiak ere euskaraz, eta gehienak ere espezialduak. Askotariko gaiak lan-tzen dituzte eta, betiere, nor bereak: euskal kulturari dagozkion gaiak (*argia.com*, *nontzeberri.com*), bereziki hizkuntzari dagozkionak (*sustatu.com*, *erabili.com*), tokian tokiko albisteak (*albisteakSMS.com*), zientzia gaiak (*zientzia.net*), ekonomia arloa (*zuredirua.com*, *gaurkoenpresa.com*), gazteen interese-ko gaiak (*kontaizu.net*), edota informazio orokorra, bizkaieraz (*bizkaie.biz*).

Hortaz, informazio mordoaren jabe izateko aukera dugu, etxetik bertatik, aurrez aipaturiko berriemaile digital horien bidez.



Denbora asko ez dela Iñaki Gaminderen *Bilbotarron euskararen zuzuan* eta Juan Martin Elexpururen *Bergara aldeko hiztegia* izeneko liburuak erabili genituen hizpide. Herrian herriko euskarak aztertzen ari dira ikertzaileak eta beste ala bat ondu digute oraindik orain, Gipuzkoako Goierriin: **Ordiziako Euskara: Garai bateko bizimodua eta gaurko hizkuntza-egoera** darma izenburu eta Larraitz Garmendia eta Kar-mele Etxabe zaldibitarrek egin da. Liburuak azterketa dialektologikoa, hausnarketa sozio-politikoa eta atal etnografikoa ditu. Eta, gainera, hiztunen pasarteak CD batean.



Justo Mokoroa idazle tolosarrak egindako biltetza-lanaren on line bertsioa jarri dute www.hiru.com helbidean. Bertan, euskarazko 90.000 esapide eta lokuzio, gaztelaniako itzulpena eta adibideak ageri dira. Horiek denak, gainera, euskalkiaren eta iturriaren arabera bilatzeko aukera.



Justo Maria Mokoroa Mujika (Tolosa, 1901-Bilbo, 1990), apaiz eta idazle izan zen eta, hain zuzen, herri-literaturan oinarritutako milaka esaera jator biltzen dituen *Ortik eta emendik* (1990) izan zen bere lanik ezagunena. Mokoroari buruzko datu gehiago nahi izanez gero, jo www.euskara.euskadi.net-eko *Bidegileak* bildumara.



Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila kultur alor ezberdinetan garatzen den aktibitate profesionala zabaltzeko programak bultzatzen ari da. Lema bat bera dute denek ere: "Kultura sortu eta zabaltzen". Oraindik orain, berriz, **"Euskadiko Soinuak"** izeneko programa jarri du martxan (www.euskadikosoinuak.com), musika sustatzeko eta bultzatzeko asmoz eta, era berean, euskal musikaren industriari laguntzeko helburuarekin.



Kultura Sailaren Liburutegi Zerbitzuak laster **Liburutegi publikoen zerbitzuei**

buruzko jarraibideak liburua argitaratu du. Liburua gaztelaniazko *Pautas sobre los servicios de las bibliotecas públicas* lanaren itzulpena da eta Hezkuntza, Kultura eta Kiroletako Ministerioak eta autonomia erkidegoek liburutegien esparruan egiten duten lankidetzaren emaitza da. Lan honen xedea da EAEko liburutegi publikoen ardura duten erakundearen eta profesionalen gidariburu izatea, hau da, bitarteko baliagarria izatea liburutegiak sortzeko eta horien zerbitzuak antolatzeko eta eskaintzeko. Lan horretan, besteak beste, honako atalak lantzen dira: erabiltzaileak eta zerbitzuak, informazio baliabideak, instalazioak, giza baliabideak eta liburutegi publikoen kudeaketa eta plangintza.

Jarraibideak katalanera eta galegora ere itzuli dira.



Martxoaren 10ean Euskararen Aholku Batzordearen Osoko Bilkura izan zen Lehendakariaren

egoitzan. Bilkura, legealdi honetako azkena izan da, eta bertan azken bi urte hauetan euskararen normalizaziorako bidean emandako urratsak eta landutako esparruen gaineko hausnarketa egiteko aukera izan da.

Lehendakariak eta Kultura sailburuak goraipatu dute urte hauetan Aholku Batzordeko kideek egindako lana eta utzitako emaitza. Horren adibide ditugu euskararen kalitateari buruz egindako hausnarketa edota helduen eskalduntze-alfabetazeari buruz egindakoa, besteak beste.



Administrazioan euskararen erabilera sustatzeko beste urrats bat egin dute Debatuen. Bertako Mankomunitateak eta bailarako euskara-zerbitzuek gazteak administrazioa euskaraz hurbildu nahi dituzte. Hori gogoan, **Gazteak eta Administrazioa** izeneko unitate didaktikoa argitaratu dute.

Lan honen abiapuntua orain bi urte argitaratutako *Idatziak* liburuxka da. Zehatz esateko, administrazioarekiko harremanak lantzen dituen atalaren osagarri. Gai hauek landu dituzte argitalpen berrian: Gazteak eta administrazioa; Gaztelekuak eta gaztetxeak; Parrandara autobusean; Isunak; Herrietako festak, eta Kirolak.

EAEko ikastetxe guztietan jasoko dute ikaslearen eta irakaslearen ale bana, guztira 1.500 ale, eta Nafarroa eta Iparraldera ere bideratuko da materiala.



Liburutegi birtuala izan daitekeena aurkeztu dute Antso Jakituna Fundazioak eta Koldo Mitxelena Kulturuneak. Datu base berria da, **Kulturaldi** izeneko, kontsultatze-ko aukera paregabeak eskaintzen dituen. Bertan, 30.000 artikulua baino gehiago dira eskueran, euskal bibliografiari dagozkion aldizkari garrantzizkoen argitaratuak. Besteak beste, honako aldizkarietako edukiek osatzen dute *Kulturaldi*: *Euskal-Erria*, *Euskal-Esnailea*, *Euskalerrriaren alde*, *Gure Herria*...



Aurrera iri da **Lite-aratura Unibertsala** bilduma. Bi titulu berri aurkeztu dituzte oraindik orain: Emile Zolaren *Parisen sabela* eta Jaroslaw Iwaszkiewicz-en *Wilko andereñoak* dira lan argitaratu berriak, hau da, bildumako 111 eta 113 zenbakiak.

Azken bi urte hauetan argitaraturiko tituluetan dira, adibidez, Antoine Saint-Exupéry-ren *Gerrako pilotu*, Leo Perutz-en *Bederatzietatik bederatzietara* (2004ko Euskadi Saria), Luigi Pirandelloren *Sei pertsonaia autore bila* eta Jean Paul Sartre-ren *Goragalea*.

Bildumaren arduradunek, bestalde, aurreratu dituzte hurrengo bi tituluak ere: James Matthew Barrie-ren *Peter eta Wendy / Peter Pan Kensington lorategietan* eta Toni Morrison-en *Maitea* izango dira.

Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretuen Elkarteak (EIZIE) zuzentzen duen bildumak Eusko Jaurlaritzaren laguntza du hasiera-hasieratik eta Elkar eta Alberdania argitaletxeek argitaratzen dute gaur egun.



Datu pertsonalak babesteko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betez, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak jakinarazten dizu inprimaki honen bitartez jarritako zure datu pertsonalak fitxategi automatizatu batean sartuko ditugula, ondoren, agerkeri hau zabaltzeko eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren zenbait argitalpenen berri emateko. Aipatutako Lege horretan jasotzen den moduan, datuak ikusi, zuzendu edo ezabatu nahi dituzula edo ez dituzula jarri nahi adierazteko, honako helbide honetara jo dezakezu: Kultura Saileko Euskara Sustatzeko Zuzendaritza / Donostia kalea, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Euskararen Berripapera zure etxean doan jaso nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan:

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza / Donostia-San Sebastián, 1 / 01010 Vitoria-Gasteiz (Araba) / Tel.: 945 01 81 16 • e-posta: l-Sosoaga@ej-gv.es